



## Tokiko Gobernu Batzarraren Akta

2024ko uztailaren 22a

### Bildutakoak:

<b>Patxi Iburguren Etxeberria</b>	<b>Lehendakaria eta Hernaniko Udaletik</b>
<b>Pepe Iparraguirre Balda</b>	<b>Andoaingo Udaletik</b>
<b>Iratxe Begiristain Otegi</b>	<b>Usurbilgo Udaletik</b>
<b>Jorge Segurado Iriondo</b>	<b>Urnietako Udaletik</b>

Akta Zenbakia <b>00000009</b>
Eguna <b>2024/07/22</b>
Iraupena -

### Asistentzia teknikoa:

<b>Julen Mungia Gorrotxategi</b>	<b>Idazkari-Kontuhartzailea</b>
<b>Helene del Río Laboa</b>	<b>Zuzendaria</b>

### Ez dira bertaratu eta etorri ezina adierazi dute:

<b>Nuria Fernandez Castrillo</b>	<b>Lasarte-Oriako Udaletik</b>
<b>Xabier Urdangarin Lasa</b>	<b>Astigarragako Udaletik</b>

### Gai Zerrenda

- |  |  |
|--|--|
| 1.- 2024/07/08(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.                  | 1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 08/07/2024.                    |
| 2.- Mankomunitateko pertsonalaren gaiaren lanketarekin jarraitzea eta sakontzea. Proposamenei buruz hitz egitea. | 2.- Continuar y profundizar en la elaboración del tema del personal de la Mancomunidad. Debatir sobre proposiciones. |
| 3.- Galdera, erregu eta proposamenak.  | 3.- Ruegos, preguntas y propuestas.  |

**Nahikoa quorum dagoenez eta Lehendakaria eta Idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.**

## **Tokiko Gobernu Batzarraren Akta**

2024ko uztailaren 22a

### **1.- 2024/07/08(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.**

Lehendabizi, 2024/07/08 datako batzaraldiari dagokion akta irakurri ondoren, Lehendakariak honen onarpena bozketara jarri du eta Gobernu Batzordeak, Lehendakariak eskuordeturik eta aho batez, ontzat eman du.

### **2.- Mankomunitateko pertsonalaren gaiaren lanketarekin jarraitzea eta sakontzea. Proposamenei buruz hitz egitea.**

Lehendakariak hartu du hitza eta azaldu du aurreko Batzar Nagusian lantzen eta onartzen saiatu ginen gaiak pendiente gelditu direla. Bi gai nagusi dira gelditu direla zintzilik esan du:

1. Plantillan dagoen akatsa zuzentzea (2023tik datorren akatsa).
2. Turismoaren gaiarekin zer egin erabakitzea.

Andoaingo ordezkariak galdetu du Turismo teknikaria ekarriko bagenu bitarteko funtzionario bezela, ea Mankomunitateko Lanpostuen Zerrendan eta Plantillan sortu beharko genukeen postua. Idazkari-Kontuhartzaileak erantzun dio ikusiko beharko litzatekeela bitarteko funtzionario hori nola, zein arrazoiren baitan, ekarriko genukeen. "programa" bidez kontratatutako funtzionarioa ekarri genezake ez baldin bada lanpostu estruktural bat, hau da, gainontzeko urteetan egingo ez den lana egiteko baldin badator, hots, aldi baterako lan ez errepikakorra egitera badator. Kasu horretan, ez litzateke beharrezkoa izango Lanpostuen Zerrendan eta Plantillan sartzea eta gehienez 3 urtetarako egon liteke. Hori bai, bere gastuan aurrekontuan aurreikusita egon beharko luke. Bestalde, hutsik dagoen lanpostu bat betetzera etorriko balitz bitarteko funtzionario hori, lanpostu estruktural bat betetzera etorriko litzatekeela suposatzen da, eta, orainoan bai, Plantillan eta Lanpostuen Zerrendan aurreikusia egon beharko litzatekeela.

Zuzendariak gehitu du aurreko bileretan esan dela ez genuela turismo teknikariarentzako lanpoltsarik aurkitzen, baina orainoan aurkitu dugula lanpoltsa hori, hain zuzen ere, Andoaingo udalean, toki garapenerako lan poltsa orokor bat sortu baitute, turismoa bere gain hartzen duena. Beraz, hala erabakiko balitz, Andoaingo lanpoltsa erabiliko genuke turismo teknikaria behin behinean eta bitarteko funtzionario bidez kontratatzeko. Honekin azkartasuna irabazi dezakegula esan du, izan ere, erabakitzen bada turismo teknikaria izatea 2025 hasierarako, teknikari hori kontratatzeko prozesua asko bizkortuko genuke.

Urnietako ordezkariak esan du bera ados dagoela Behemendiren harremana bukatzearekin baina hortik aurrera zer egin ez duela batere argi. Bere iritziz, lanketa bat egin beharko zen ikusteko zein den egoera (irailean Mankomunitatea turismo

## **Tokiko Gobernu Batzarraren Akta**

2024ko uztailaren 22a

hausnarketarekin hasiko dela) eta gero erabaki beharko dela zer egin, adibidez, lizitazio batekin kanpoko enpresa bat ekarri eskualdeko turismoko ekintzak jorratzeko. Eta hori ere ez dela zergatik berehalako zerbait izan behar. Ez du berebiziko beharrik ikusten berehala hasteko lanketa horrekin, lehenago, badaudela beste gai potoloago batzuk eusteko eta konpontzeko, adibidez, Enplegua eta Enpresa sailen indartzea.

Lehendakariak erantzun dio beraien intentzioa dela turismoaren lanketarekin jarraitzea, izan ere, aspalditik izan dugula zeharkako turismo teknikari bat Behemendiren eskutik.

Urnietako ordezkariak erantzun dio Behemendi uztearen hutsune hori ez dugula zertan teknikari batekin bete behar, baizik eta enpresa bat kontratatu dezakegula horretarako, eta hori ere ez dela zertan berehalako gai bat izan behar.

Lehendakariak erantzun dio argi dagoela eskumena hartu behar dugula eta gero eskumen hori nola eta noiz jorratu, ba, landuko dugula eta ikusiko dugula.

Urnietako ordezkaria azken horrekin ados agertu da eta esan du orain turismo teknikari bat hartuko bagenu hasierako planteamendua aldatuko litzatekeela, izan ere, Andrea %50n iraunkortasun gaietan aritzen dela eta beste %50n turismoan.

Zuzendariak hartu du hitza eta esan du egia dela planteatu zenarekiko aldaketak egon direla eta (batzuk aurreikusi zitezkeela, adibidez ekintzailletza eta enpresa teknikari batekin aurrera eramatea ezinezkoa zela, eta beste eskaera batzuk berriak direla, turismo teknikaria jardunaldi osoan izatea), horregatik, gustatuko litzatekeela jakitea politikoki zer erabaki hartzen duten jakiteko eta ikusteko zein den norantza. Baliabide gehiago gabe ezingo gara beste eskualdeen berdina izan, eta garbi dagoen kontu bat da Gipuzkoak eskualdeen arabera funtzionatzen duela, hortaz, behin eskualdeko entitatea sortua dagoenean GFA eta beste organismoak guregana gerturatu ari direla, alor desberdinetan eskualdearekin lanketa egiteko. Nahiz eta lanketen emaitzak oraindik ez ikusi, bide ona daramagula uste dugu, izan ere, egunerokotasunean tratatzen ditugun kanpo eragileek (enpresek, formakuntza eskolek, hirugarren sektoreko eragileek...) begi onez ikusten dute Mankomunitatea eta poztasuna adierazten digute behingoz eskualderako interlokutore bat dutelako elkarlana eta aukerak sustatu ahal izateko. Egoera horretan, etorkizunera begira Lanpostuen Zerrendaren aldaketa edo postu berrien sorrera planteatzen dugu, izan ere, garbi izan behar dugu zein puntutaraino eskaini ditzakegun zerbitzuak eta non amaituko den gure eskaintza. Adibidez, Salesianos Urnietak datorren urtera begira ekintzailletza tailerrak eta saioak egiteko eskatu digute, ekintzailletasuna sustatzeko elkarlanean programa bat sortuz. Horrekin aurrera egin dezakegun edo ez jakiteko derrigorrez argitu behar da noraino hazi ahal izango den ekintzailletza departamentua eta non amaituko diren eskainiko ditugun zerbitzuak.

## **Tokiko Gobernu Batzarraren Akta**

2024ko uztailaren 22a

Ondoren, Idazkari-Kontuhartzaileak BBMko pertsonalaren proposamen tekniko berria jarri du pantallan eta azaldu die denei. Azken proposamen honetan 2 Enpresa teknikari, 1 Ekintzaile teknikari eta 1 Enplegu teknikari Plantillan gehitzea proposatzen da. Kontratazio horiek bat-batean ez egiteko 2025, 2026 eta 2027 urteetan pixkanaka egiteko planteamendua aurkezten da eta langile horiek aurrekontuan nola eragingo lukeen ere ikusten da. Ondoren, gastu-aurrekontuaren bilakaera azaltzen da, besteak beste, pertsonal gastuak izango luketen igoera kontuan hartuta eta ondoren sarrerenaurrekontua azaltzen da, bi egoeratan banatuta: egoera positiboa eta negatiboa. Positiboak kontuan hartzen du beste erakunde publikoek gure egitasmoen %86 finantzatzen ditugula, pertsonal-gastuaren %20 eta hori dena urtean bertan, kolpean, jasotzen dugula. Negatiboak, berriz, esan nahi du beste erakundeek finantzazioa ez dela hasieratik jasotzen, baizik eta, lehenengo urtean %35 jasotzen dela, bigarren urtean %40 eta hirugarren urtean %25. Beraz, sarrerenaurrekontuari dagokionez, bi egoera horiek aztertu dira eta ikusten da udal-ekarpenen bilakera zein izango zen, baita ere egitasmoen finantzazioarenak eta pertsona gastuen finantzaketarena.

Jarrian, estimatu da gutxi gorabehera diruzaintzako gerakina zenbatekoa izango den urte bukaeran eta diru-kopuru hori (450.000€) erabili daitekeela behar hauetarako.

Bukatzeko, Oarsoaldea SA eta Urola Kosta Mankomunitateko aurrekontuekin konparatu da guk hemen aurkeztutakoa, batez ere, azpimarratzen zein den bakoitzaren aurrekontua eta horrekiko zenbat diren udal-ekarpena eta giza-baliabideak. Hala ere, kontuan izan behar da Oarsoaldea eta Urola Kosta Mankomunitateko datuak 2019koak direla eta gureak, aldiz, etorkizunekoak.

LZren aurkezpenarekin bukatutakoan Zuzendariak dio, egitasmoen inguruan, egia dela erabakitze ahalmena dugula zer egitasmotan sartu, baina iraganetik lantzen ditugun egitasmoetan (TEE, Elkar Ekin, ETE Digitala...), hori bete behar batzuk ditugula (baldin eta ez badugu noizbait horietatik ateratzea erabakitzen) eta horiek erantzun behar ditugun lan-karga handia suposatzen dute. Lan dinamikak dagoeneko sortuta daude eta GFAk, adibidez, ematen digun laguntza ikusita, ondoren Gipuzkoa mailarako sorkuntza eta elkarlan tailerretara joatea eskatzen digu.

Lehendakariak berriro gogorazi du gure baliabideak urriak direla daukagun erronkari behar bezala eusteko eta horregatik apustua egitea gustatuko litzaikeela BBM indartzeko. Bukatzeko, esan du hurrengo Gobernu Batzarrean datuak berriro ikusiko ditugula eta eztabaidarekin jarraituko dugula, baina ezin dugula luzatu mugarik gabe. Epemuga 2024 urtea dela eta, azkenean, erabakitzen bada Lanpostuen Zerrenda eta Plantilla aldatzea, jarraitu beharreko prozedura luzea dela, eta horregatik ezin garela lokartu. Hala ere, badaezpada, berriro gogoratu du prozedura legala beti errespetatuko dela, baina orain gauden fasea 0 fasea dela, eztabaida eta zer egin nahi den erabakitze

## **Tokiko Gobernu Batzarraren Akta**

2024ko uztailaren 22a

momentua (adostasun politikoa lortzeko momentua), eta ez gaudela, hortaz, ezer erabakitzeko azken momentuan.

Gai Zerrendaz kanpo, *Galdera, erregu eta proposamen* atalera iritsi aurretik, eta gaiaren eztabaida presazkoa dela iritzi ondoren, aho batez, eta beraz, batzarkideen gehiengo osoaren quorumarekin, ondoko erabakiak hartu ziren.

### **3.- Galdera, erregu eta proposamenak.**

Zuzendariak bi gai komentatu ditu:

- a) Aurreko ostegunean ETE DIGITALAren itxiera egin zela Astigarragako Erribera Kulturgunean. 5 enpresek hartu dutela parte (nahiz eta gutxienezkoa 4koa izan) eta emaitza onak lortu dituzte (batzuk zuzenean egingo dute aurrera eta bik finantzazio lanketa egin beharko dute aurrera egin ahal izateko, baina nola edo hala apostua egiteko jarrera adierazi dute). Bertan enpresal, aholkulari/kontsultoritzak enpresako ordezkariak egon ziren eta GFAko Zuzendari eta zerbitziburua. Aurtengo egitasmoaren balorazioa, lehena izanik gainera, oso positiboa izan zen.
- b) Asier Gutierrez, Zabalduz Elkartearen hitzarmenaren baitan genuen intserzio soziolaboraleko teknikaria, hau da, nolabait, Mankomunitateko bigarren enpleguko langileak, bere lanpostua utzi eta Hernaniko udaleko toki garapenerako teknikari izatera pasa da. Hortaz, Elkar Ekinen baitan, enplegu-soziala dinamizatu eta orientazio zerbitzua emateaz arduratzen zen pertsona galdu dugu. Beraz, orain ikusi beharko dugu zer egin Zabalduzekin (beraiekin dugun urte bukaera arteko hitzarmenarekin amaitu edo beraiekin jarraitu, nahiz eta horretarako pertsona berri bat hartu beharko luketen eta agian ez zen eraginkorra izango, finantzaketa abenduan amaituko baita 2025-2026ean luzatzeko aukerarik egon gabe). Hortaz, irtenbide gisa, pentsatu dugu gure Lanpostuen Zerrendan dagoen bigarren Enplegu teknikaria lehenago kontratatzea (irailean) eta berak egitea lan horren zati bat behintzat (Elkar Ekin, deribazioak...). Horretarako dirua aterako genuke Zabalduzi ordaintzeari uzten diogunarekin, horrek, pertsona aldaketa gehiago izatea ekidingo luke (gizarte zerbitzu, formakuntza eskola, hirugarren sektoreko eragileak... ezagutu behar dituelako pertsonak), kalitatezko zerbitzu baten alde.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzaraldia. Idazkari-Kontuhartzaileak batzaraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Lehendakariak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritik Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta

## **Tokiko Gobernu Batzarraren Akta**

2024ko uztailaren 22a

Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, naizen honek, ematen dut.

**O.E., / Vº Bº**  
**Lehendakaria**

### **1.-Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 08/07/2024.**

En primer lugar, tras la lectura del acta correspondiente a la sesión del día 08/07/2024, la Presidenta somete a votación su aprobación y la Junta de Gobierno, por delegación de la Presidenta y por unanimidad, da el visto bueno a la misma.

### **2.- Continuar y profundizar en la elaboración del tema del personal de la Mancomunidad. Debatir sobre proposiciones.**

Toma la palabra la Presidenta para explicar los temas que intentamos tratar y aprobar en la anterior Asamblea General y que han quedado pendientes. Dice que se han quedado pendientes dos temas principales:

1. Corrección de errores en la plantilla (Error proveniente de 2023).
2. Decidir qué hacer en materia de turismo.

El representante de Andoain pregunta si, en caso de traer un/una Técnico/a de Turismo como funcionario/a interino/a tendríamos que crear el puesto en la Relación de Puestos de Trabajo y en la Plantilla de la Mancomunidad. El Secretario-Interventor le contesta que habría que ver cómo traeríamos a ese/a funcionario/a interino/a, en función de las razones que lo motiven. Podríamos contratarlo/a por "programa" si no es un puesto estructural, es decir, si viene a realizar un trabajo que no se va a realizar el resto de años, es decir, un trabajo temporal no repetitivo. En este caso, no sería necesario su inclusión en la Relación de Puestos de Trabajo y en la Plantilla y podría estar por un periodo máximo de 3 años. Eso sí, su gasto debería estar previsto en el presupuesto. Por otra parte, si el/la funcionario/a interino/a viniera a ocupar una vacante, se supone que vendría a ocupar una plaza estructural, y esta vez sí debería estar previsto en la Plantilla y en la Relación de Puestos de Trabajo.

La Directora añade que en reuniones anteriores se ha dicho que no encontramos bolsa de trabajo para el/la Técnico/a de Turismo, pero que en esta ocasión hemos encontrado

## **Tokiko Gobernu Batzarraren Akta**

2024ko uztailaren 22a

en el Ayuntamiento de Andoain que han creado una bolsa de trabajo general para el desarrollo local que asume el turismo. Por lo tanto, si así se decidiera, utilizaríamos la bolsa de trabajo de Andoain para la contratación provisional y mediante funcionario interino del/ de la técnico/a de turismo. Dice que con esto podemos ganar rapidez, ya que si se decide contar con un/una técnico/a de Turismo para el comienzo de 2025, aceleraríamos mucho el proceso de contratación de este/a técnico/a.

El representante de Urnieta dice que está de acuerdo en que se ponga fin a la relación con Behemendi pero que a partir de ahí no tiene nada claro qué hacer. Opina que se debería hacer un trabajo para ver cuál es la situación (en septiembre la Mancomunidad comenzará con la reflexión turística) y que luego habrá que decidir qué hacer, por ejemplo, contratar una empresa externa mediante licitación para abordar las acciones turísticas de la comarca. Y esto tampoco tiene que ser algo inmediato. No ve la necesidad vital de empezar de inmediato con esta tarea, ya que existen otras cuestiones más importante como el refuerzo de los departamentos de Empleo y Empresa.

La presidenta le responde que su intención es continuar con el trabajo del turismo, ya que desde hace tiempo hemos contado con una técnica de turismo transversal de la mano de Behemendi.

El representante de Urnieta le contesta que no es necesario cubrir este vacío del cese de Behemendi con un/una técnico/a, sino que podemos contratar a una empresa para ello, que tampoco tiene por qué ser un tema inmediato.

La Presidenta responde que está claro que tenemos que asumir la competencia y luego cómo y cuándo la abordaremos, pues ya lo trabajaremos y ya veremos.

El representante de Urnieta se muestra de acuerdo con esto último y dice que si ahora recibiéramos a un/una técnico/a de turismo cambiaría el planteamiento inicial, ya que Andrea se dedica al 50% a temas de sostenibilidad y otro 50% al turismo.

La Directora toma la palabra para decir que es cierto que ha habido cambios respecto a lo que se planteó (algunos que se podían haber previsto, por ejemplo la imposibilidad de llevar a cabo con un/a solo/a técnico/a de empresa y emprendimiento, y que otras peticiones son nuevas, tener un/a técnico/a de turismo a jornada completa), por lo que nos gustaría saber qué decisiones se toman políticamente y ver cuál es el camino a seguir. Sin más recursos no podremos ser iguales a otras comarcas, y una cosa evidente es que la Diputación Foral de Gipuzkoa trabaja por comarcas, por lo que una vez creada la entidad comarcal, la DFG y otros organismos se están acercando a nosotros para trabajar con la comarca en diferentes ámbitos. A pesar de no ver todavía los resultados



## **Tokiko Gobernu Batzarraren Akta**

2024ko uztailaren 22a

de los trabajos, creemos que llevamos un buen camino, ya que los agentes externos que tratamos en el día a día (empresas, escuelas de formación, agentes del tercer sector...) ven con buenos ojos a la Mancomunidad y nos muestran su satisfacción por contar de una vez por todas con un interlocutor para la comarca que pueda fomentar la colaboración y las oportunidades. En este contexto, planteamos de cara al futuro la modificación de la RPT o la creación de nuevos puestos, ya que debemos tener claro hasta qué punto podemos ofrecer servicios y dónde acaba nuestra oferta.

Por ejemplo, Salesianos de Urnieta nos ha encargado realizar talleres y sesiones de emprendimiento de cara al año que viene, creando un programa de colaboración para fomentar el emprendimiento. Para saber si podemos seguir adelante con esto es necesario aclarar hasta dónde va a poder crecer el departamento de emprendimiento y dónde van a terminar los servicios que vamos a ofrecer.

A continuación, el Secretario-Interventor expone en la pantalla la nueva propuesta técnica del personal de BBM. En esta última propuesta se propone la incorporación a la Plantilla de 2 Técnicos/as de Empresa, 1 Técnico/a de Emprendimiento y 1 Técnico/a de Empleo. Se presenta el planteamiento de que estas contrataciones no se realicen de forma repentina durante los años 2025, 2026 y 2027, sino que de forma gradual, y cómo repercutiría este personal en el presupuesto. A continuación se presenta la evolución del presupuesto de gastos, teniendo en cuenta, entre otros aspectos, el incremento que experimentarían los gastos de personal, y a continuación el presupuesto de ingresos, desglosado en dos situaciones: positiva y negativa. La positiva tiene en cuenta que otras instituciones públicas nos financian el 86% de nuestros proyectos, el 20% del gasto de personal y todo esto lo recibimos de golpe al año. La negativa significa que la financiación de otras instituciones no se recibe desde el principio, sino que el primer año se recibe el 35%, el segundo el 40% y el tercero el 25%. Por tanto, en cuanto al presupuesto de ingresos, se han analizado ambas situaciones y se observa cuál sería la evolución de las aportaciones municipales, la financiación de los proyectos y la financiación de los gastos personales.

A continuación, se estima un importe aproximado del remanente de tesorería a final de año y que puede destinarse a estas necesidades (450.000 €).

Por último, se ha comparado lo aquí presentado con los presupuestos de Oarsoaldea, S.A. y de la Mancomunidad de Urola Kosta, incidiendo sobre todo en el presupuesto individual de cada uno y en la contribución municipal y los recursos humanos en relación con el mismo. No obstante, hay que tener en cuenta que los datos de Oarsoaldea y de la Mancomunidad de Urola Kosta son de 2019 y los nuestros de futuro.

Al finalizar con la presentación de la RPT, la Directora dice que en relación a los proyectos, es cierto que tenemos capacidad de decidir en qué proyectos entrar, pero en los proyectos que trabajamos desde el pasado (TEE, Elkar Ekin, ETE Digitala...), que ahí



## **Tokiko Gobernu Batzarraren Akta**

2024ko uztailaren 22a

tenemos una serie de obligaciones (si no decidimos salir de ellas en algún momento) que suponen una gran carga de trabajo a la que tenemos que dar respuesta. Las dinámicas de trabajo ya están creadas y viendo la ayuda que nos proporciona, por ejemplo, la DFG, nos pide ir a talleres de creación y colaboración.

La Presidenta ha vuelto a recordar que nuestros recursos son escasos para afrontar adecuadamente el reto que tenemos y por ello le gustaría apostar por reforzar la BBM. Concluye diciendo que en la próxima Junta de Gobierno volveremos a ver los datos y seguiremos con el debate, pero que no podemos alargarlo sin límites. Si finalmente se decide modificar la Relación de Puestos de Trabajo y la Plantilla con vencimiento el año 2024, el procedimiento a seguir es largo, por lo que no nos podemos dormir. No obstante, por si acaso, vuelve a recordar que el procedimiento legal siempre se va a respetar, pero que la fase en la que nos encontramos es la fase 0, momento de debate y de decidir qué se quiere hacer (momento de consenso político) y, por lo tanto, no estamos en el último momento de decidir nada.

Fuera del Orden del Día, antes de llegar al apartado de Ruegos, Preguntas y Propuestas, y tras considerar urgente la discusión del asunto, se adoptaron por unanimidad, y por tanto con el quórum de la mayoría absoluta de los miembros de la Asamblea, los siguientes acuerdos.

### **3.- Ruegos, preguntas y propuestas.**

La Directora comenta dos cuestiones:

a) Que el pasado jueves se celebró el cierre de la PYME DIGITAL en Erribera Kulturgunea de Astigarraga. Han participado 5 empresas (aunque el mínimo es de 4) y han obtenido buenos resultados (algunas van a avanzar correctamente y dos van a tener que hacer una elaboración de financiación para poder salir adelante, pero han manifestado su disposición a apostar por esto). Asistieron representantes de empresas, asesoría/consultoría empresarial y el Director y Jefe de Servicio de la DFG. La valoración del proyecto de este año, además de ser el primero, fue muy positiva.

b) Asier Gutierrez, técnico de intervención sociolaboral que teníamos en el marco del convenio de la Asociación Zabalduz, es decir, de alguna manera, trabajador de segundo empleo de la Mancomunidad, ha dejado su puesto de trabajo para pasar a ser técnico de desarrollo local del ayuntamiento de Hernani. Por lo tanto, en el seno de Elkar Ekin hemos perdido la persona que se encargaba de dinamizar el empleo social y de prestar el servicio de orientación. Por lo tanto, ahora habrá que ver qué hacer con Zabalduz

## **Tokiko Gobernu Batzarraren Akta**

2024ko uztailaren 22a

(acabar con el convenio que tenemos con ellos hasta final de año o continuar con ellos, aunque para ello deberían acoger a una nueva persona y quizás no hubiera sido efectivo, ya que la financiación terminará en diciembre sin que haya posibilidad de prórroga en 2025-2026). Por eso, como solución, hemos pensado en contratar al/ a la segundo/a Técnico/a de Empleo que está en nuestra Relación de Puestos de Trabajo antes (en septiembre) y hacer él/ella mismo/a al menos una parte de ese trabajo (Elkar Ekin, derivaciones...). Para ello, sacaríamos dinero con lo que dejamos de pagar a Zabalduz, lo que evitaría más cambios de personas (porque tiene que conocer a las personas, a los servicios sociales, a la escuela de formación, a los agentes del tercer sector...), a favor de un servicio de calidad.

Y sin más asuntos que tratar, la Presidenta levanta la sesión ordinaria. Redactado por el Secretario-Interventor el presente documento relativo al período de sesiones, con la lectura y visto bueno de la Presidenta, lo firman ambos de conformidad con lo dispuesto en el artículo 110.2 del vigente Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Local. Y de cuanto antecede, doy fe.

**O.E./Vº Bº**

**La Presidenta**



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024BG010009-Akta Ofiziala/Acta Oficial (BETERRI BURUNTZA)